

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, BARAKALDO ANTZOKIA, SA-REN 2005, 2006 ETA 2007-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (HKEE), Eusko Legebiltzarraren Osokoak hala eskatuta, Barakaldo Antzokia, SAren 2005, 2006 eta 2007ko ekitaldietako txostena mamitu du. Txostena Osokoaren kideen gehiengoak onetsi du, nahiz kideetatik hiruk desadostasunezko boto partikularra egin duten.

Fiskalizazio txostenak legezkotasuna berrikusten du ondasun eta zerbitzuen kontratazio gaietan, jasotako diru-laguntza gaietan eta baita, ezargarri diren bestelako legeko arauen ezarpena ere. Halaber, urteko kontuak ezargarriak zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datozela egiaztatu da.

Legezkotasunaren atalean, HKEEk Barakaldo Antzokia SAren jarduerari buruzko iritzi orokorra eman eta aztergai izan diren hiru ekitaldietan indarreko araudia zuzentasunez bete dela adierazi du. Iritzi honi hainbat salbuespen egin zaizkio eta txostenean bertan daude zehaztuak.

2000ko urtean Sozietatearen eta Eolo Teatro, SLren artean lankidetzaz hitzarmena urratu zenetik 2006ko azarora arte, Eolo Teatro, SLk jarduera artistikorik egin ez duen aldia, Barakaldo Antzokia, SAK aipatutako sozietatearen langileria kudeatu eta haien soldata eta gizarte aseguruak ordaindu ditu; horrez gainera, laneko bajak Zuzendari Exekutiboaren hautazko irizpideen arabera ordaindu ditu. HKEEren iritzira, Eolo Teatro, SLk 2000ko ekitaldian jarduera artistikoa eten zuela aintzat hartuta, Sozietateak Antzokiko zerbitzuak kudeatzeko kontratu berri bat esleitzeko prozedurari ekin behar ziokeen.

Eolo Teatro, SLk emandako zerbitzuen kudeaketa 2000ko urtetik 2006ra bitartera arte, publizitate eta lehia printzipioak alde batera utzita gauzatu da.

2007ko ekitaldian, Administrazio Kontseiluaren Lehendakariak Barakaldoko Udalaren Alkate zen aldetik bi antzerki lan kontratatu zituen enpresa berarekin, 36 eta 49 mila euroko zenbatekoarekin, Sozietatearen estatutuek agintzen zutena urratuz. Administrazio Kontseiluak 2008ko urrian 49 mila euroko zenbatekoa ez ordaintzea erabaki zuen eta horren ondorioz, demanda aurkeztu zuten Sozietatearen aurka Madrilgo 1. Auzialdiko 8. zk.ko Epaitegian, gaur egun ebazteko dagoena.

Kontu Orokorrei dagokienez, HKEEK aldeko iritzia eman du kontuaren aurkezpen eta edukiari dagokionez, bi salbuespen egin dituela: Lehenengoa hiru ekitaldiei dagokie eta Udalaren jabe den Antzokiko eraikina erabiltzeko eskubidearen egiazko balioaren erregistro ezaren ondorio da, nahiz honek ez dituen ez ondare garbia, ez emaitzak eragiten. Bigarrena 2007ko ekitaldiari dagokio, erregistratzeko baitago hartzekodunarekin desadostasunak dituen ordainagiri bat.

Berebat, HKEEK hainbat irizpen plazaratu ditu barne kontrolerako sistemari eta kudeaketa prozedurei buruz.

Amaitzeko, txostenari hainbat eranskin argigarri txertatu zaizkio eta desadostasunezko boto partikularra osotasunean.